



Universidad del País Vasco Euskal Herriko Unibertsitatea

ERABAKIA, 2020ko martxoaren 13koa, Universidad del País Vasco/Euskal Herriko Unibertsitateko Errektorearena, unibertsitateko irakasle funtzionarioen kidegoetako plaza betetzeko lehiaketan onartutako eta baztertutako lehiakideen behin betiko zerrenda onartzeko dena.

UPV/EHUko errektorearen 2020ko urtarrilaren 16ko erabaki bidez (urtarrilaren 29ko EAO eta otsailaren 11ko EHAA), unibertsitateko irakasle titularren kidegora sartzeko lehiaketaren deialdia egin zen. Errektorego honek ondokoa erabaki du:

Lehenengoa.- Onartzea onartuen eta baztertuen behin betiko zerrenda. Zerrenda Leioako Errektoregoko lehiaketan ataleko iragarki oholean dago, baita campusetako errektoreordetzekoetan ere. Interneteko webgune honetan ere kontsulta daiteke:<http://www.ehu.eus/> (Irakasleak- Deialdi bideratuak).

Bigarrena.- Argitaratzea onartuen eta baztertuen behin betiko zerrenda, erabaki honen eranskin gisa agertzen dena. Bertan adieraziko da zein izan den baztertuta uzteko arrazoia.

Hirugarrena.- Erabaki hau izapide egintza kualifikatua da eta bere aurka aukerako berraztertze errekurtsoa aurkez dakioke UPV/EHUko errektoreari, eta hilabeteko epearen barruan, Herri Administrazioen Administrazio Prozedura Erkidearen urriaren 1eko 39/2015 Legeko 123. artikuluan eta hurrengoetan jasotako moduan; edo, bestela, zuzenean aurka egin daiteke Bilboko Administrazioarekiko Auzietako Epaitegietan (errekurtso egilea aurretik funtzionarioa bada), edo Euskal Autonomia Erkidegoko Auzitegi Nagusiko Administrazioarekiko Auzietako Salan (errekurtso egilea aurretik funtzionarioa ez bada).

Hala adierazten da, guztiek jakin dezaten.

Leioan, 2020ko martxoaren 13an

ERREKTOREA

Eskumenak eskuordetuta (Erabakia, 2017ko urtarrilaren 25ekoa, errektorearena, 2017/02/03ko EHAA), Irakasle-ikertzaileen arloko errektoreordea



Izpta. Inmaculada Guerricagoitia Marina





Universidad Euskal Herriko  
del País Vasco Unibertsitatea

### **LEHIAKETARA ATERATAKO PLAZEN DATUAK:**

Lanpostuaren zenbakia: 1. Kodea: TUC8/1-D00118-51. Kidegoa: Unibertsitateko irakasle titularrak. Jakintza arloa: "Ekologia". Saila: Landareen Biologia eta Ekologia. Ikastegia: Zientzia eta Teknologia Fakultatea. Hizkuntz eskakizuna: Hirueleduna (euskera/gaztelera/ingeleza); Arduraldia: Osoa; Egin beharreko irakaskuntza eta ikerkuntza lanak: "Ekologia", "Kartografia, GIS eta Teledetekzioa" eta "Limnologia".

### **ONARTUTAKO LEHIAKIDEEN BEHIN BETIKO ZERRENDA:**

Deiturak eta izena: AITOR LARRAÑAGA ARRIZABALAGA  
NAN: \*\*\*7070\*\*

**KANPORATUTAKO LEHIAKIDEEN BEHIN BETIKO ZERRENDA:** Bat ere ez